

AZALERA HANDIETAKO ETA ELIKADURA-KATE HANDIETAKO MERKATARITZA-INDIZEA. 2025EKO ABUZTUA


Euskal Autonomia Erkidegoko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak % 0,4 murriztu dira 2025eko abuztuan

Aurreko hilabetearekin alderatuta, salmentak % 0,4 murriztu dira

Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak % 0,4 jaitsi dira aurreko urteko hil beraren aldean, prezio konstanteetan eta egutegiaren ondorioak zuzendu ondoren. Aurreko hilabetearekin —2025eko uztaila— alderatuta, prezio konstanteetako salmentak, dagozkien urtaro-eraginak kenduta, % 0,4 jaitsi dira.

Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)

Egutegiko eraginak zuzendua. Prezio konstanteetan



Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

Salmentek urte batetik bestera izan duten bilakaera positiboa izan da *Gainerako produktuak* sektorean, % 0,7ko igoera izan baita. Hala ere, *Elikadura* sektorean salmentak % 0,9 murriztu dira 2024ko abuztuarekin alderatuta.

Hilabete arteko datuei dagokienez (2025eko abuztua eta 2025eko uztaila), bilakaera negatiboa izan da, bai *Elikagaiak* sektorean (% 0,6 jaitsi da), bai *Gainerako produktuak* sektorean (% 0,2 egin du atzera).

Euskal AEko azalera handietako eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizea.Urte arteko eta hilabete arteko aldakuntza-tasak (p). Abuztua 2025

	Prezio finkoak		
	m / m-12	m / m-1	A (m) / A (m-12)
Indize orokorra lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	-0,4	-0,4	0,6
Araba/Álava	-0,3	0,5	-0,3
Bizkaia	0,1	-1,0	1,3
Gipuzkoa	-1,1	0,1	-0,2
Indize orokorra sektorearen arabera			
Janariak	-0,9	-0,6	0,4
Gainerako produktuak	0,7	-0,2	1,1
Enplegu-indizea			
Euskal AE	1,1	0,5	1,6

(p)Behinbehineko datuak

m / m-12 Urteen arteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

m / m-1 Hilabeteen arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

A(m)/A(m-12) Urtarriletik hil korrientera arte metatutako aldiaren urte arteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko aldi metatu beraren aldean

Data 2025eko irailaren 29a

Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan

Azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak % 0,1 igo dira Bizkaian 2025eko abuztuan, urte batetik bestera. Aitzitik, Araban eta Gipuzkoan salmentak % 0,3 eta % 1,1 jaitsi dira, hurrenez hurren. Hil arteko datuei dagokienez, salmentak % 0,5 igo dira Araban eta % 0,1 Gipuzkoan. Bizkaian, aldiz, % 1,0 jaitsi dira.

Urteko lehen zortzi hilabeteetako metatuan, azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak % 0,6 igo dira 2024ko aldi metatu beraren aldean; hala, Bizkaian % 1,3ko igoera izan da. Araban, berriz, % 0,3ko jaitsiera izan da, eta Gipuzkoan % 0,2koa.

Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako **langile okupatuen** kopurua, azkenik, % 1,1 handitu da 2024ko abuztuarekin alderatuta. Hilabete arteko datuei dagokienez, langileen indizeak % 0,5 egin du gora. Abuztura arteko urteko metatuan % 1,6ko hazkundera izan da.

INFORMAZIO-OHARRA

Urte arteko aldakuntzak egutegi-efektuen serie zuzenduetatik eta hilabete arteko aldaketetatik abiatuta kalkulatzeko dira, urtaro-eraginik gabeko serieak oinarri hartuta.

Eustatek eskerrak ematen dizkie merkataritza-indizea egiten lagundu duten azalera handietako eta elikadura-kate handietako establezimendu guztiei. Hilabete honetako indizea **% 96,97ko estaldurarekin** kalkulatu da.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

[Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62